

Beste talde politikoekin elkarlanean sakontzeko prest daudela azaldu du EHk

Orain arte eginiko lanean aurrerapausoak eman nahi dituzte udaletako hautetsiek

Axun Erzibengoa / Zarautz

Hego Euskal Herrian EH bozkatuena izan den herrietako ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten atzo. Azken hilabeteotan beste alderdi batzuekin eginiko lana nabarmendu eta aurrerantzean lan horretan sakontzeko konpromisoa azaldu zuten. Beste talde politikoekin elkarlanean aritzeko ateak zabalik daudela jakinarazi zuten hautetsiek.

FERNANDO FLORES Etxarri-Aranazko alkatea mintzatu zen Hego Euskal Herriko udaletako hautetsien izenean. Azken hilabeteetan eginiko lanaren ondorioz zenbait pauso eman direla esan zuen. Adibide gisa aipatu zituen Lizarra-Garaziko Akordioa, Udal Ordezkarien Biltzarra eta Gasteizen Jaur-laritzaren eta EHren artean eginiko Legegintzaldi Akordioa.

Hauteskundearen emaitzak ikusita orain arteko lanean sakondu behar dela adierazi zuen Floresek. «Urrats kuantitatiboa eta kualitatiboa izango litzateke beste alderdiekin elkarlanean aritzea eta akordioak lortzea. Horregatik, prest gaude beste taldeekin elkarlanean aritzeko. Orain artekoa areagotu nahi



Hego Euskal Herriko zenbait udaletako hautetsiak agertu ziren prentsaurrekoan.

dugu, eguneroko lanean sakondu».

Lan hori guztia aurrera ateratzeko eta emaitzak lortzeko, ordea, oinarri sendoak izatea beharrezkoa da EHren ustez. Horretarako lau ardatz nagusi proposatu zituzten hautetsiek: «Batetik, demokrazia partehartzailea». Udalei dagokienez, herritarrek parte hartze zuzena izan behar dutela azaldu zuen. Bigarrenik, gizarte alternatibo baterantz joateko gobernatzeko modu berriaz hitz

egin zuen. Hirugarren, Euskal Herrian zabaldutako prozesu demokratikoa sustraitu beharra aipatu zuen, eta azkenik instituzioek Euskal Herriaren eraikuntza nazionalerako tresna izan behar dutela.

Arnaldo Otegik hitz egin zuen ondoren, eta hark ere elkarlanak emaniko fruituak aipatu zituen. Elkarlan horretan jarraitzeko asmoa ere azaldu zuen.

Hauteskunde emaitzei dagokienez, Otegik esan zuen

norberak bere kontuak egiten dituela, baina Lizarra-Garaziko Akordioaren sinatzaileek Hego Euskal Herrian botoen %54 lortu zutela oroitarazi zuen. «Botoen %51ekin proiektu independentista bat bultzatzea zaila litzateke, baina are zailagoa da botoen %46ekin proiektu ez demokratiko bat bultzatu nahi izatea».

Preso diren hautetsiak gogoratu zituzten udaletako ordezkariak, haien argazkiak mahaian jarritz.

Otegi: «Sozialistek ezin dute txantajeatu euskal proiektu nazionala»

ALDERDIEN arteko elkarlanetik kanpo geratu diren alderdiak badirela azaldu zuen Arnaldo Otegik, eta alderdi horiek besteekin bat egitea garrantzitsutzat jo zuen. Hala ere, argi utzi zuen horretarako bi baldintza daudela: «Euskal Herriaren ezagutza, lurraldetasuna eta euskaldundok erabakitzen dugunaren errespetua».

Ziklo bat amaitu eta beste bat hasi behar da, Otegiren irudikoz, eta «ona litzateke bloke demokratikoa osatzen dugunon artean ahalik eta gehien egotea». Ildo horretan kokatu zuen PSE-EErekin eginiko bileran eskatutakoa. «Bira demokratiko bat eskatu genien, 1977-78ko jarretara itzul daitezela».

Lizarra-Garaziko akordioa sinatzera ez dutela inor behartuko esan zuen, baina akordioaren edukiak demokratikoak direla oroitarazi zuen, eta hori onartzea ezinbestekoa dela erantsi. «Sozialisten tentaldia bada pentsatzea lortu dituzten emaitzekin txantajeatu dezaketela proiektu nazional bat, oker dabil-tza. Gu apustu demokratiko bat egiten ari gara. Gurekin etorri nahi duena etorriko da; nahi ez duenak, gizarteari azaldu beharko dio zergatia».